


BEZERO SEGMENTUA

Gaur egun denoi gertatu zaigu gailu elektroniko baten pantaila apurtzea erortzerakoan, gure egunerokoan beti gainean izaten ditugulako. Teknologia gero eta aurreratuagoa da eta horregatik gailu elektronikoetan materialak kalitate txarrakoak dira, enpresak dirua aurreztu nahi dutelako. Hori dela eta arazo larri honi konponbide bat aurkitu dugu eta honekin batera gure proiektua aurkezten dugu.



Egoera hau dela eta gero eta gehiago ikusten ditugu gertakari hauek, adibidez: Kaletik zozaz eta bat-batean mobila erortzen zaizu pantaila matxuratuz, orduan, zure gurasoen gana zoaz 70-80 € eskatzera pantaila konpontzeko. Egoera hau gero eta normalagoa da gazteen artean, hori dela eta, gure proiektua segmentu honeri eskeintzea gustatuko litzaiguke.

Lehenago aipatu dugunarekin batera azaldu nahi dugu nola gure produktua erabiliz aukera merkeagoa, berriztatzaileagoa eta seguruagoa aurrera atera dugula. Gure ingurua aztertu ondoren konturatzen gera nola gure mobila adibidez beste pertsona bati konpontzeko uzterakoan beste arazo larri batzuk ematen dira, hala nola: kalitate txarreko ordeko pieza bat ematen dizute eskatzen dizuten dirua baino askoz gutxigo gastatuz, beste alde batetik zure mobila pertsona hori uzterakoan barruan dagoen informazio pertsonala lapurtzeko arriskua dago... Bakoitzak bere mobila edo tableta manualki konpontzerakoan arrisku hauek saihesten ditu.



Hau guztia ikusita mertaku barruan gure produktua beste produktuetatik nabarmentzea lortu dugu eta horregatik bezeroentzat aukera hoberena dela pentsatzen degu